

**JASSER ARAFAT**

PANeko presidentea

«Joan Belenera eta kontatu nazioartearen isiltasunarekin gertatzen ari den krimena»

**ARIEL SHARON**

Israelgo lehen ministroa

«Iraganean Arafat kanpora ateratzen zenean izu olde baten seinalea izaten zen»

**ARI FLEISCHER**

Etxe Zuriko eleduna

«Arafatek ez du George Bush presidentearen konfiantza irabazi»

«erresistentzia sendo dago oraindik». Palestinako hamahiru erakunde nazionalista eta islamikok exijitu zuten atzo, beseetik, Arafat askatzearen truke Jerikoko espetxe batera bidali dituzten sei ekintzaileetatik FPLP Palestina Askatzeko Herri Fronteko buruzagi Ahmed Saadat eta PANeko finantza arduradun Fuad Shubaki askatzeko. Atxiloketen aurkako manifestazioak iragarri zituzten.

Belengo Natibitate basilikako gatazka konpontzea da orain Arafaten lehentasunetako bat. Horretarako nazioartearen laguntza eskatu zuen. «Zergatik zaudete hemen? Joan zaitezte Belenera eta kontatu nazioarteko komunitatearen isiltasunarekin mundua zuzenean sufritzen ari den krimena», esan zien kazetariari Ramalako egoitzan hartu zituztenean aske geratu eta berehala.

Washingtonen atek itxita

George W. Bush Estatu Batuetako presidentek PANeko presidentearekin biltzeko asmorik ez zuela jakinarazi zuen Etxe Zuriko eledun Ari Fleischerrek: «Arafatek ez du bere konfidantza irabazi». Ariel Sharon, berriz, larunbatean abiatuko da Washingtonera. Bake proposamen bat aurkeztekoa da Sharon Bushi. Likud alderdiko kide eta Israelgo Estatu idazkari Tsaji Hanegbik atzo esan zuenez, oraingoz Likud eta Sharon estatu palestinarra sortzearen aurka daude.

Estatu Batuetako Kongresua Israeli elkartasuna adierazteko erresoluzio sorta bat onartzekoa zen atzo, eta Arafaten jarrera salatzen.

Arafati indarkeria geldiarazteko behar bezainbesteko ahalgini ez egitea leporatzen dio Bushi; israeldarren aurkako erasoak berak zuzentzen dituela, berriz, Tel Avivetik. Hala, Shin Bet zerbitzu sekretuek esan zuten atzo Arafaten Al Fata mugimenduko buru Marwan Barghoutik aitortu duela israeldarren aurkako hainbat eraso planeatu zituela. Arafaten bidez eraso horiek burutzeko diru laguntza jaso zuela adierazi du, baita PANek armak ematen zizkiela ere. Apirilaren 15ean atxilotu zuen Armadak Barghouti, Ramalan.

Mohammed Dahlan PANek Gazan duen segurtasun arduradunak elkarrizketa batean agintea berritzeko beharra nabarmendu du, eta Arafat horren jakitun dela gaineratu.



MIKE NELSON / AFP

Israeldarrek Belengo Natibitate elizaren aurka atzo goizaldean eginiko bonbardaketan irudi bat. 200 palestinar inguru daude babesturik elizan apirilaren 2tik.

Belengo basilikan sartzea galarazi diote Etxegarairi

Vatinakoak ordezkari bidali euskal kardinala Arafatekin bildu da

Erredakzioa | DONOSTIA

ELKARTASUNA

Israelgo Armadak galarazi zion atzo Vatikanoren ordezkariari apirilaren 2tik setiatua den Belengo Natibitate basilikan sartzea eta han babesturik diren 200 bat laguneko bisita egitea. Roger Etxegarai kardinal ezepletarra (Lapurdi) Moshe Katsav Israelgo presidentearekin bildu zen atzo goizean aferaren inguruan mintzatzeko. Gauean Jasser Arafat Palestinako Aginte Nazionalen presidentearekin ere bildu zen. Elizan, bitartean, palestinar bat hil zuten Israelgo Armadako tiratzaileek, eta bakezale talde batek sartzea lortu zuen, kristauen arabera Jesukristoren jaiolekuaren inguruan eraikitako dagoen tenpluan.

Katsav basilikaren aurkako setioa bukatzeko Israeliek jarritako baldintzak berretsi zizkion Etxegarairi: hau da, barruan babesturiko palestinarren artean israeldarrek akusatutako 30 lagunak beren burua entregatzea edo erbeste joatea.

Atzo goizaldean palestinar

Talde bakezale bateko 10 kide eta argazkilaria bat elizan sartu ziren Israelgo tanke eta tiratzaileei aurre eginda

bat hil eta gutxienez beste bi zauritu zituzten israeldarrek. Hildakoa PANeko polizia zela eman zuen aditzera elizan babesturikoen artean den Mohamed Al Medeni Belengo gobernadoreak.

Israelgo Armadak esan zuenez, basilikako patioan ziren bost lagun aurka tiro egin zuten soldaduek. Borroka gogorrak izan ziren atzo elizaren inguruan. Israeldarrek tenplua bonbardatu zuten eta hainbat egoitza suntsitu zituzten.

Atzo arratsaldean Belengo Nazioarteko Elkartasun Mugimendua talde bakezaleko 10 kide eta argazkilaria batek elizan sartzea lortu zuten Israelgo tanke eta tiratzaileei aurre eginda, beste 13 laguneko

talde batek Armadaren arreta desbideratzen zuen bitartean. Ameriketako Estatu Batuetako, Erresuma Batuko, Kanadako eta Suediako 10 ekintzaileek elikagaiak sartu zituzten barruan diren lagunentzako. «Egoera oso zaila da hemen», esan zuen Al Medenik gobernadoreak, janik eta urik ez dutela nabarmenduta.

Ramalako konponbidea eredu

Auzia konpontzeko Armadarekin negoziatioetan ibili den Hanna Nasser Belengo alkateak Arafaten Ramalako egoitzaren setioa konpontzeko eginiko itunaren antzekoa proposatu zion israeldarrei atzo: Israeliek xerkatzen dituen palestinarren PANen kontrolpeko Jeriko hirira eramatea eta han epaitzea. «Erruduntzat jotzen badituzte, AEBetako eta Erresuma Batuko zaindarien esku jarriko dituzte», esan zuen Nasserrek. Halere, palestinarrek atzoko israeldarrei biltzeko eginiko eskaerak erantzunik ez zuela izan gaineratu zuen Belengo alkateak.

Powell, Annan, Ivanov eta EBko ordezkariak Washingtonen elkartu dira egoera aztertzeko

Erredakzioa | DONOSTIA

AEB Ameriketako Estatu Batuetako Estatu idazkari Colin Powell, NBEko idazkari nagusi Kofi Annan, Errusiako Atzerri ministro Igor Ivanov eta Europako Batasuneko ordezkari osatu laukotea Washingtonen elkartu zen atzo Ekialde Hurbileko gatazkaz mintzatzeko. Atzokoa taldearen bigarren bilera izan zen, duela hilabete osatu zenetik.

AEB, Errusia, Nazio Batuen eta Europako Batasunaren goi ordezkariak konponbidea bilatu nahi diote Ekialde Hurbilean Israelgo operazio militarren ondorioz are gehiago okertutako gatazkari.

Errusiako Atzerri ministro Igor Ivanovek lau taldearen garrantzia nabarmendu zien kazetariari Washingtonera iristean. «Denok dakigu ez dela erraza izango. Baina guk guztiok badakigu egiteko modukoa ere badela», adierazi zien.

Iritziak iritzi, ikusteko dago zer-nolako eragina izan dezaketen nazioarteko politikako lau ordezkariak Ekialde Hurbileko odol isurketa gelditzeko, batez ere, Israelen politika errepresibo eteteko. NBEren azterketa taldea ez zuela bidaliko eskualdera iragarri zuen asteazkenean Kofi Annanek, Israeliek Janingo iheslari eremuan gertatua ikertzen ez zuela lagunduko adierazi ostean.

Washingtonen inguru horretan duen eragina ere etzabaidagarria da askoren iritziak, Ariel Sharon Israelgo lehen ministroak ez diolako kasurik egin George W. Bushi. Zisjordanian Israelgo Armadak berriz okupatutako hiri eta herrietatik alde egiteko eskatu zion Sharoni AEBetako lehendakariak. Estatu idazkari Colin Powell ere ez zuen arrakastarik izan, eta Israeliek Bushen eskaerak bete gabe alde egin behar izan zuten Ekialde Hurbiletik, bertara egindako bidaiaren ondoren.

Laukotea Madrilan elkartu zen lehendabiziko aldiz apirilaren 10ean. Nazioarteko konferentzia bat eratzeko posibilitatea aipatu arren, ez zen akordiorik lortu. Orain ere ez dirudi aukera hori gauzatuko denik.